



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 16a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira koronabirusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen osoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur ekipamenduei buruzko 2022-2026 plan zuzendari bat taxutu dezan. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeko familientzat duen kostua. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, egoitza-zentroetan txertoa jaso duten egoiliarren bisitak eta irteerak malgutzeko irizpideei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, enpresetan berdintasun-planak sustatzeko neurriei eta horien kontrolari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Iratxeko monasterioari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasunari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Muesko erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasunari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2014an emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2015ean emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2016an emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2017an emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2018an emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2019an emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2020an emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2021ean emandako dirulaguntzei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, egoitzen arteko lan-mugikortasunari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordea Batzordean iza-pidetzea (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira koronabirusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira koronabirusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osasun Batzordea eta Nafarroako Gobernua premiatzen dituen honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Urtebete geroago, COVID-19aren pandemiak aurrekaririk ez duen krisi sozial, ekonomiko eta sanitarioa eragin du munduan. Pandemiari aurre egiten jarraitzen dugu, amestutako txertoak heldu diren arren, kutsatzea ekiditeko oraingoz beharrezkoak diren neurri murriztaileen bidez: konfinamendu perimetralak, maskararen erabilera, distantzia soziala... Herritarrek oraindik ere bizi dute ziurgabetasun-egoera, ez soilik beren osasu-

nagatik, ezpada beren bizi-baldintza eta -baliabideengatik ere.

Nafar guztien bizitzak baldintzatu –eta are eten edo errotik aldatu– dituen ustekabeko egoera bati aurre egiten urtebete igaro eta gero, logikoa da herritarrak nekatu antzean egotea. Osasunaren Mundu Erakundeak berak neke pandemiko gisa definitu du gogo-aldarte hori.

OMEk honela deskribatu du neke pandemikoa: “gomendatutako babes-jokabideak jarraitzeko motibazio eza, denboran zehar arian-arian azaltzen dena eta zenbait emozio, esperientzia eta pertzepzioren zor zaiena, bai eta gizarte-, kultura-, egitura- nahiz legedia-testuinguruari ere”.

Herritarrak akuilatu beharra dago, Zientziak pandemiari aurre egiteko daukan gaitasuna azpimarratzeko eta neurriak ezartzeko, nafar herritarrek prebentzio-neurriak betetzen jarrai dezaten eta, azken finean, gizalegearen aurkako portaerak alde batera utz ditzaten lortzeko.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1- Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu koronabirusaren krisiak eragindako neke pandemikoari aurre egiteko kanpaina instituzionalak egin ditzaten.

2- Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu zeharo gaitzets ditzaten gizalegearen aurkako portaerak nahiz portaera horiek sustatu dituzten jarrera negazionistak eta intoleranteak.

3- Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu pandemiaren irteera seguru eta eraginkorra Zien-

tziaren eskutik ez beste inondik etorriko delako uste osoa dutela adieraz dezaten.

4- Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu herritarrei dei egin diezaieten izaten ari diren

jokaera eredugarriarekin jarrai dezaten, COVID-19ari aurrea hartzeko oinarrizko gomendioak betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen osoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen osoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen María Jesús Valdemoros andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2020ko abenduaren 23an, Nafarroako Parlamentuak abenduaren 29ko 21/2020 Foru Legea onetsi zuen, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen

testu bategina aldatzeko. Foru lege horren bidez, besteak beste, pentsio planetarako zerga-arinketak onetsi ziren.

2020ko abenduaren 30ean, berriz, Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko 11/2020 Legea onetsi zen, zeinean finantza-muga berri bat ezartzen baitzen plan indibidualetarako urteko ekarpenetarako.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak, gainera, Nafarroako Parlamentuan 2021eko otsailaren 26an egindako agerraldian harrigarriro aldeztu zuen honako ideia hau: beste ordenamendu juridiko baten araudiaren aitzinean amore eman behar luke Nafarroaren zerga-araudiak. Bestela esanda: Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko 11/2020 Legearen bidez onetsitako muga berriak Nafarroako Parlamentuan onetsitako zerga-araudia mugatzen du, halako moduan non eraginik gabe uzten baititu 50 urtetik gorako nafar zergadunei pentsio plan indibidualen arloan Nafarroako legediak eskaintzen dituen zerga-arinketak.

Hori horrela:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du onetsi beharreko arau-xedapenak onets ditzan, ekidite aldera Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko 11/2020 Legeak mugatu dezan Nafarroako Foru Komunitateak zerga-arloan daukan eskumen historiko osoa.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur ekipamenduei buruzko 2022-2026 plan zuzendari bat taxutu dezan.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultur ekipamenduei buruzko 2022-2026 plan zuzendari bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuak bi hamarkada luze egin zituen udalen titulartasun publikoko kultur etxeak eraikitzea sustatzen eta finantzatzen, kultur etxeen proiektuak idaztera, eraikitza eta ekipatzera bideratutako kasuko dirulaguntzen deialdien bidez. Azken foru agindua, zeinaren bidez 2.740.000 euroko gastua baimendu baitzen, 2008ko martxoaren 26an argitaratu zen.

Hamabi urte dira jada kultur etxe berriak eraikitzeke laguntzen deialdi publikorik gabe; halatan, urteotan egin diren obrak partida izendunen bidez finantzatu dira.

Aurreko krisi ekonomikoko murrizketa zorrotzen ondorioz desagertu egin zen "Kultur etxeak eta udalen bestelako kultur guneak eraiki eta ekipatzea" izeneko partida, eta oraindik ez da berreskuratu.

Zalantzarik gabe, behar-beharrezkoa da partida hori berreskuratzea Kultura eta Kirol Departamentuaren aurrekontuetan, bai lurraldeko kultur ekipamenduen mapa osatzeko beharragatik (gure erkidegoko zenbait eremutan gabezia nabarmenak daude), bai Nafarroako Antzokien Sareko udaletako gune eszenikoen hornidura teknikoak egokitzeko beharragatik.

Nafarroako kultur etxe gehienak eraiki ziren bi hamarkadetan zehar antolamendu-esparrurik ez egoteak ekarri du nabarmen desorekatuta dagoen mapa bat edukitzea lurralde-banaketari dagokionez.

Akats larria izanen litzateke dirulaguntzen deialdia berreskuratuko bagenu lehenago plangintza-esparru global bat taxutu gabe, detektatutako gabeziei erantzun bat eman liezaiekeena eta administrazio publikoen esku-hartzeak jasangarritasun-esparru batean koordinatzea ahalbidetuko lukeena.

Lehentasunezkoa eta estrategikoa da kultur ekipamenduei buruzko 2022-2026 plan bat edukitzea lehendabizi, ekipamendu publikoen sarea osatzeko beharrezkoak diren ekipamendu berriak eraikitzea bultzatzeko xedez, herritarren aukera berdintasuna aldeztuko duena lurralde osoan kultura irigarri izateari dagokionez, sormen artistikoa eta kohesio soziala bultzatu bidenabar.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kultur ekipamenduei buruzko 2022-2026 plan zuzendari bat taxutu dezan 2021eko abenduaren 30erako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du titulartasun publikoko kultur etxeen proiektuak idaztera, eraikitza eta ekipatzera bideratutako dirulaguntzen deialdi publikoa berreskura dezan 2022ko aurrekontuetan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloak (0-3 urte) modu eraginkorrean laguntzen die adin horretako haurrei, bai beren garapen orekaturako, bai haurren gaitasun kognitibo eta afektiborako, mugitzeko gaitasunerako eta inguruarekiko elkarreaginerako eta komunikaziorako.

Gaitasun horiek eskuratzeko aukera bereziki garrantzitsua da beren familien egoera soziala eta lanekoa dela-eta etxean etengabeko estimulazio, arreta eta afektu girorik aurkitzen ez duten haurren kasuan, erabateko garapena lortzeko bidea izan dezaten.

Horri dagokionez, ebidentzia enpirikoa oso zabala da; hala, hezkuntza goiztiarrak eragin askoz handiagoa du errenta maila baxuko eta giro sozial behartsuetako familietatik datozen haurrengan, klase ertain eta altuko familietakoengan baino.

Garai hauetan, COVID-19ak eragindako osasun krisiak are gehiago handitu ahal duenean gizarte-arrakala, beharrezkoa da gehien behar duten haurrak babestea eta eskolatze egokia ziurtatzea kalitatezko hezkuntza-inguruneetan, desberdintasun pertsonalak, kulturalak eta sozialak konpentsatzeko. Ingurune horien xedeak izan behar du, familien lankidetzarekin, haurren nortasunaren eta beren ahalmen guztien garapen-prozesu guztiz egokia ematea, ongizate- eta segurtasun-esparru batean.

Zorionez, azken urteotan Nafarroan haur eskolaren sare indartsu bat garatu da, bai ekimen publikoaren eskutik (udalak eta Nafarroako Gobernuak), bai ekimen pribatuaren eskutik. Sare horrek gaitasuna du kalitatezko zerbitzua emateko gure erki-degoko adin horretako ia haur guztiei.

Hala ere, aurreko krisian ere ikusi ahal izan genuen moduan, ikusten ari gara nola Nafarroako familia asko, beharbada behartsuenak, haur eskolak uzten hasiak direla, eta hurrengo ikasturterako aurreikuspena, datorren krisi soziala dela-eta, joera horrek okerrera egitea da.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua; hain zuzen, udalen edo Gobernuaren beraren mendeko eskola publikoetan eskolatzen direnena, bai eta Hezkuntza Departamentuak baimendutako eskola pribatuetan eskolatutakoena ere.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

F saila:
GALDERAK

Galdera, egoitza-zentroetan txertoa jaso duten egoiliarren bisitak eta irteerak malgutzeko irizpideei buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, egoitza-zentroetan txertoa jaso duten egoiliarren bisitak eta irteerak malgutzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer irizpide ari da helarazten egoitza-zentroetara txertoa jaso duten egoiliarren bisitak eta irteerak malgutzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, enpresetan berdintasun-planak sustatzeko neurriei eta horien kontrolari buruzkoa.*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, enpresetan berdintasun-planak sustatzeko neurriei eta horien kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko konseilari Mikel Irujo Amezagak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

• Zure departamentuak zer neurri hartuko du enpresetan berdintasun-planak sustatzeko? Zer kontrol-neurri dauka ezarrita jakiteko plan horiek osorik garatzen ote diren?

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado.

Galdera, Iratxeko monasterioari buruzkoa.*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Iratxeko monasterioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen

Miguel Bujanda Cirauqui, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Kultura Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Zortzi hilabete igaro dira Iratxeko monasterioaren titulartasuna Nafarroako Gobernuari itzuliko zitzaioala iragarri zenetik, baina oraindik ere ez da halakorik gertatu. Noiz itzuliko zaio?

Nafarroako Gobernuak zer inbertsio eta zer aurrekontu-partida baliatuta egingen du ekitaldi honetan, titulartasunaren aldaketa formala egin aurretik eta ondoren?

Zeri zor zaio eta nola eta noiz zuzenduko ditu Iratxeko monasterioaren eta elizaren kanpoaldearen mantentze- eta garbiketa-egoera tamalgarria eta hirigintza-kudeaketarik eza?

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriak

eta Nafarroako Gobernuak sinatutako hitzarmenaren seigarren klausulak honako hau jasotzen du: "Diruz lagundutako jarduera betetzen dela kreditatzeko, entitate onuradunak 2020ko abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharko du hitzarmenaren xedea betetzean egindako gastuen justifikazioa, bai eta horiek ordaindu izanarena ere, aurreratutako diru-kopuruaren pareko zenbatekoagatik hain zuzen ere, eta kreditatu egin beharko da jasotako funtsak eman ziren xederako ez beste ezertarako baliatu direla". Eta horretarako eman behar zen dokumentazioa zehazten da.

1.- Departamentuaren ustez, entitateak zer epetan aurkeztu behar zuen dokumentazio hori? 2020ko abenduaren 10ean?

2.- Entitateak noiz igorri zuen dokumentazio hori? nola igorri zuen?

3.- Entitateak noiz eskatu zuen dokumentazio horren parte bat aurkezteko luzapena? nola egin zuen eskaera?

4.- Departamentuak eskaera horri erantzun al zion? nola erantzun zion?

5.- Geroago aurkeztu ahal izatea eskatu zen dokumentazio hori jaso al da jada?

Noiz eta nola jaso da?

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasunari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Norena da Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian (40°38'52" N 2° 3'1"W) dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasuna?

Iruñean, 2021eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Muesko erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasunari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Muesko erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Norena da Muesko 1. poligonoko 597. lurzatian dauden erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasuna? Baldin eta pribatua bada (Parlamentuko batzordean hori esan zitzaigun), kontuan hartuta aurkikuntzaren interes historikoa nahiz ondarezkoa eta bertan jada egiten ari den inbertsioa, zer izapide egiten ari da titulartasuna Nafarroako Gobernuarena izan dadin?

Iruñean, 2021eko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2014an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2014an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako diru-laguntzak, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2014an? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2015ean emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2015ean emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako

diru-laguntzak, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2015ean? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2016an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2016an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako diru-laguntzak, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2016an? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2017an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2017an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako diru-laguntzak, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2017an? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2018an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailletza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2018an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako

diru-laguntzak, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2018an? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2019an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2019an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako diru-laguntzak, ekintzailatza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2019an? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2020an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2020an emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako diru-laguntzak, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan zuen 2020an? (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2021ean emandako dirulaguntzei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, ekintzailtza bultzatzen duten zerbitzuak emate aldera toki entitateei eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateei 2021ean emandako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenaren bidez arautu ziren toki entitateentzako eta haien menpeko edo haiei loturiko entitateentzako

diru-laguntzak, ekintzaitza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten.

Zer emaitza izan du 2021ean? (deialdia ebazten denean) (Zehaztu kontratatutako garapenerako eragileen kopurua eta bideratutako aurrekontua, herrien, mankomunitateen edo partzuergoen arabera). Bideratutako aurrekontu orokorra.

Iruñean, 2021eko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, egoitzen arteko lan-mugikortasunari buruzkoa.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko galdera, egoitzen arteko lan-mugikortasunari buruzkoa, Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin. Galdera 2021eko mar-

txoaren 9ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00141).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias